

Eusko Garcia Aranburu

D maila • Aipamena

Kaixo, Eusko Garcia Aranburu naiz eta 2004ko azaroaren 22an jaio nintzen Ordizian.

Bertan bizi naiz eta Jakintza ikastolan ikasten dut eta aurten DBH1ean nago. Nire

zaletasunen artean aipatuko nituzke pelota, korrika egitea, monozikloa. Margotzea ere asko gustatzen zait.

Ilusio handia egin dit sari honek eta espero dut nire bertsoak gustatzea.



NIRE OPORRAK

Doinua: Astoa ikusi nuen

1.

Haruntza joan ezkerro
hondarra da dena
hau da oporretako
tokirik onena
itsasora sartzea
hango ederrena
joango gara hartuta
toaila ta krema

2.

Batzutan komeni da
txanoa jaztea
toboganean be(he)ra
irristan jeistea
atsegina nola den
haruntza joatea
aukera izatea
nolako zortea

3.

Mendira joan eta
ondo begiratu
sua piztu ondoren
guk jana prestatu
lo zakua ireki
gainean lokartu
ondo pasatu eta
naturaz gozatu

4.

Suziriak bota ta
zeruan eztanda
musika hasi eta
kalean txaranga
buruhandi, zezenak
orain gure txanda
lagunak elkartu ta
nolako parranda